



Newsletter N. 1

Azaroa 2017

Laburpena

Ongi etorri! Hau da LIFE BACCATA proiektua: Kantauriar Mendilerroko hagin basoak zaintzen eta leheneratzen

2

LIFE BACCATA-K lehen aldiz antolatu du kantauriar mendilerroko haginei buruzko mintegi tekniko

4

Life Baccata proiektua lanean ari da jada kantauriar mendilerroko "Taxus Baccata-ren Mediterranear basoen lehentasunezko habitataren (9580*)" karakterizazioa eta aurretiazko diagnostia egiteko

6

LIFE BACCATA programak 25. urteurrena ospatu du

7

LIFE BACCATA proiektuak ekosistemen zerbitzuei buruzko ekitaldi batean hartu du parte Tallinen (Estonia)

8

www.life-baccata.eu



SOCIOS

LIFE15 NAT/ES/000790



ADMINISTRACIONES COLABORADORAS



1. Ongi etorri! Hau da LIFE BACCATA proiektua: Kantauriar Mendilerroko hagin basoak zaintzen eta leheneratzen

Abendu 22, 2016

LIFE BACCATA proiektua hagina dagoen habitataren zaintzan eta leheneratzean datza, egun aipatu habitata arriskuan eta erregresioan baitago Kantauriar Mendilerroko Natura 2000 Sarea barne hartzen den lekuetan, hots, Galizian, Gaztela eta Leonen eta Euskadin.

Haginen habitata, Europako beste herrialde batzuetan ere badago, Portugalen, Frantzia, Italian eta Grezian kasu. Europar Batasuneko Habitaten Zuzendaraua kontuan hartuz gero, kontserbazio-maila kaltegarria da, ez da behar dena Espainiako eskualde atlantikoan; Mediterraneo aldekoetan, berriz, kaltegarria dela eta txarra gainera balioesten da.

LIFE BACCATA proiektuan zehar, Kantauriar Mendilerroaren zati handi batean jardungo da; hala ere, egiten diren azterketek eta lortzen diren emaitzek nazioartean izango dute eragina, horrelako habitata duten lurraldeak baitaude Portugalen, Frantzia, Italian eta Grezian, era berean arriskuan.

LHauek izango dira lanerako ildoak:

Ezagutzea, *Taxus baccata* espeziea eta bertako habitata hobeto ezagutuz. Horretarako, egungo egoeraren analisia egingo da eta biziraupena arriskuan jartzen duten mehatxuak zeintzuk diren identifikatuko dira. Ezagutza teknika sortu nahi da, aplikatua eta erreferentziazkoa, gerora, kontserbazio-ekintza egokiak diseinatu ahal izateko eta beste eremu batzuetan ere erabili ahal izateko Europar Batasunean.

Kontserbatzea, habitata babestuz eta zabalduz. Horretarako, baso-tratamendu jakin batzuk aplikatuko dira, habitata arriskuan jartzen duten espezie exotikoak kanporatu, habitateko berariazko landareak hazi eta hagin basoen etorkizuna bermatuko duten kontrol eta kontserbazio genetikorako neurriak aplikatu.

Zabaltzea, gizarteari espezie berezi hau eta bertako habitata berreskuratzeak eta modu natural eta iraunkorrean zaintzeak zer nolako garrantzia duen azalduz eta horren inguruan sentsibilizatuz, horrek guztiak bertakoei ekar dakizkieken onura sozioekonomikoei buruz informatuz.

Azaroa 2017

Newsletter N.1



Haginak arriskuan daude, eta mehatxu horiek zuzenean eragiten dute bertako biodibertsitatean; horregatik ekin behar da lehenbailehen, etorkizuna bermatze aldera.

Urteetan zehar joan dira sortzen arrisku eta mehatxu horiek: suteak, zuhaitz-mozketak, azpiegituren eraikuntza, espazio naturalen zatikatzea eta horien arteko harreman falta edo klima-aldaketaren ondorioak. Faktore horietako bakoitzak edo guztiek batera arriskuan jarri dute espeziearen biziraupena, habitata eta bertako biodibertsitatea, eta horregatik, ekin eta modu jasangarrian etorkizuna bermatu behar da.

LIFE BACATTA proiektuak basoak babesteko eta kudeatzeko neurriak aplikatuko ditu haginaren eta hagin basoen zaintza eta leheneratzea hobetzen laguntze aldera. Horretarako, espezieak modu naturalean birsortzea sustatuko da, baita haginak bizi diren fauna eta flora ere, eta hala biodibertsitatea galtzea ekingo da.

LIFE BACCATA proiektuan parte hartuko dute Santiago de Compostelako, Gaztela eta leongo Juntak, Cese-for-ek eta Hazi-k, Landa eta Itsasertzen sustapenerako Eusko Jaurlaritza Korporazioak

Newsletter N. 1

Azaroa 2017



2. LIFE BACCATA-K lehen aldiz antolatu du kantauriar mendilerroko haginei buruzko mintegi teknikoa

Ekainak 30, 2017

Newsletter N. 1

Azaroa 2017

Mintegi honetan, Gaztela eta Leongo Juntak eta Cesefor fundazioak hartuko dute parte. Mintegi honi esker, komunikazio-baliabideak eman nahi dira informazioa zabaltzeko, ezagutzak hedatzeko eta esperientziak trukatzeko, helburu bera duten beste lantalde batzuekin.

Habitat honen zaintzan, eta bereziki proiektu honen eremuan, erantzukizuna duten beste erakundeei, batik bat, haginaren inguruan egin diren ahalegin tekniko eta zientifikoak helarazi nahi zaizkie saio tekniko zientifiko hauetan.

Jardunaldi hauetan, parte-hartzaileek habitataren inguruan dituzten ezagutzak eta kudeaketari buruzko esperientzia baliotsuak trukatu dituzte. Gainera, mintegi hauei esker, elkarlaneko sarearekin jarraitu eta hura sendotu nahi da, orain arte egin diren esperientziei buruzko informazioa eskura izateko.

Jardunaldiak doakoak dira, eta Leongo hiriburuko Centro de Defensa contra el Fuego delakoan egingo dira 2017ko datorren ekainaren 29an. Sarrera libre eta doakoa da, lekuak bete arte. Izen-ematea, webgunean.

LIFE BACCATA proiektua hagina dagoen habitataren zaintzan eta leheneratzean datza, egun habitat hori arriskuan eta erregresioan baitago Kantauriar Mendilerroko Natura 2000 Sarea barne hartzen den lekuetan, hots, Galizian, Gaztela eta Leonen eta Euskadin.

Proiektuan zehar, Kantauriar Mendilerroaren zati handi batean jardun nahi da; hala ere, egiten diren azterketek eta lortzen diren emaitzek nazioartean izango dute eragina, horrelako habitata duten lurraldeak baitaude Portugalen, Frantzian, Italian eta Grezian, era berean arriskuan.



Taxus baccata

Haginak arriskuan daude, eta mehatxu horiek zuzenean eragiten dute bertako biodibertsitatean. Urteetan zehar joan dira sortzen arrisku edo mehatxu horiek: suteak, zuhaitz-mozketak, azpiegituren eraikuntza, espazio naturalen zatikatzeta eta horien arteko harreman falta edo klima-aldaketaren ondorioak. Faktore horietako bakoitzak edo guztiek batera arriskuan jarri dute espeziearen biziraupena, habitata eta bertako biodibertsitatea, eta horregatik, ekin eta modu jasangarrian etorkizuna bermatu behar da.

LIFE BACCATA proiektuak basoak babesteko eta kudeatzeko neurriak aplikatuko ditu haginaren eta hagin basoen zaintza eta leheneratzea hobetzen laguntze aldera. Horretarako, espezieak modu naturalean birsortzea sustatuko da, baita haginak bizi diren fauna eta flora ere, eta hala biodibertsitatea galtzea ekingo da.

LIFE BACCATA proiektua Europako Batzordearen laguntza-finantzarekin egingo da LIFE esparruan, eta 2016 eta 2020 urteen bitartean gauzatuko da Kantauriar Mendilerroko Natura 2000 Sarea barne hartzen den lekuetan, hots, Galizian, Gaztela eta Leonen eta Euskadin. Proiektuan koordinazio-lanak ere egingo ditu Santiago de Compostelako Unibertsitateak, eta kide izango dira Gaztela eta Leongo Junta, Cesefer eta Hazi, hau da, landa eta itsasertzaren garapenerako Eusko Jaurlaritzako Korporazioa.

Informazio gehiago proiektuaren webgunean: www.life-baccata.eu



Azaroa 2017

Newsletter N.1

3. Life Baccata proiektua lanean ari da jada kantauriar mendilerroko "Taxus Baccata-ren Mediterranear basoen lehentasunezko habitataren (9580*)" karakterizazioa eta aurretiazko diagnosia egiteko

Ekainak 02, 2017

Lanaren xedea da Natura 2000 Sareko Kantauriar Mendilerroko espazioetan dauden "Taxus baccataren mediterranear basoen" 9580* lehentasunezko habitataren karakterizazioa eta aurretiazko diagnosia egitea.

Habitat horren hasierako karakterizazio, diagnosi eta ebaluazioa bat dator LIFE BACCATA proiektuaren prestaketa lanekin, eta bere xedea da beharrezko informazioa lortzea proiektuaren kontserbazio lanen plangintza teknikoa garatzeko eta ondorioen jarraipena egiteko. Informazio garrantzitsua emango du 9580* habitataren interpretazioa argitzeko, kartografia eguneratzeko, Nat2000 formularioak betetzeko eta habitata balorizatzeko.

Gainera, landuko diren esparruetako hagin multzoen azterketa etnokulturala beharrezkoa da proiektuaren zabalkundearen programa gidatzeko, bertako biztanleria haginaren kontserbazioan inplikatzeko eta habitat hori eta tokiko biztanleriarekin duen harremana balorizatzeko.

Newsletter N. 1

Azaroa 2017



4. LIFE BACCATA programak 25 urteurrena ospatu du

Ekainak 22, 2017

Pasa den ostiralean, ekainaren 9an, LIFE BACCATAk Habitatariei buruzko Zuzentaraua (DC 92/43/CEE) onartu izanaren eta Europako LIFE programa abian jarri izanaren 25. urteurrena ospatu zuen; orduan ebaluatu zen ingurumenean zer nolako inpaktua eta abantailak eragin dituen programak azken mende laurdenean.

Urteurrenerako, Galizian azken 25 urteetan Naturaren eta Klimaren aldeko Ekintzarako egin diren 4 LIFE proiektu aurrera nola eraman diren eta nola jarri diren abian azaldu zioten publikoari, emaitzak eskainiz, aurre egindako erronkak azalduz, ingurumenean zein onura egon diren azpimarratuz eta ezagutzak zabalduz.

LIFE BACCATA proiektukoek adierazi zuten izugarrizko ahaleginak egin behar direla helburu diren hagin basoen zaintzarako, kontserbazioari dagokionez lehentasunezko habitat mota da eta; horregatik eman du Europako Batzordeak esleitu zezakeen gehiengo finantzazioa (%75).

Azkenik, aurkeztutako proiektuei buruzko edonolako galderak egiteko tarte bat eskaini zitzaien bertaratutakoei.



Newsletter N.1

Azaroa 2017

5. LIFE BACCATA proiektuak ekosistemen zerbitzuei buruzko ekitaldi batean hartu du parte Tallinen (Estonia)

Maiatzak 22, 2017

LIFE BACCATA proiektua "COSTING THE EARTH? – TRANSLATING THE ECOSYSTEM SERVICES CONCEPT INTO PRACTICAL DECISION MAKING", ekitaldian izan zen LIFE VIVA GRASS erakundeak antolatutakoan, Tallinen (Estonia) 2017ko maiatzaren 10 eta 12 bitartean.

Ekitaldian zehar inbentario eta balorazioen aspektu estrategiko guztiak aztertu ziren ekosistemek eskaintzen dituzten zerbitzuei buruz, baita erabakiak hartzeko modua ere, ikuspegi horretan oinarrituta, gaur egun, gure jarduerak ingurumenean zer nolako eragina duten ebaluatzeko aukera onena dela uste da eta.

Alekitaldian 100 pertsona baino gehiago etorri ziren 18 herrialdeetatik, gehienak EBekoak. Jardunaldietan zehar, LIFE BACCATAko kideek ikuspuntuak trukatu eta ezagutzak eta metodologiak partekatu zituzten bertaratutakoekin. Etekin izugarria atera zioten, bada, topaguneari, beste LIFE BACCATA proiektuetan ondorioztatutakoak aplika baitaitezke eta ikasitakoak barne hartu LIFE BACCATA eremuetan. Beste proiektu batzuetako parte-hartzaileekin ikasitako beste errealitateei esker, proiektuen arteko harreman interesgarriak ere lortu ziren. Elkarlanean aritzeko balio dezakete dagoeneko abian diren proiektuetan, edo proiektu berriak abian jartzeko, informazioa trukatzeko edo ikerketarako.

LIFE BACCATA proiektuaren helburu nagusia "Taxus baccata-ren mediterraneen basoen" lehentasunezko 9580^{*} habitataren kontserbazioa hobetzea da Kantauriar Mendilerroko Natura 2000 Sarean barne hartzen diren 15 eremu babestuetan, mota honetako basoen azalera areagotuz, egitura eta funtzionaltasuna hobetuz eta, ondorioz, geroko aukerak zabalduz. Lortzen diren emaitzak zabaltzeko eta transmititzeko hainbat neurri ere barne hartzen dira proiektuan, baita oro har jendearentzako informazio- eta sentsibilizazio-programa bat ere 9580^{*} habitatak duen garrantziari, bertako biodibertsitatearen baloreei eta proiektuetan lantzen diren ekosistemek eskaintzen dituzten zerbitzuei buruz.

Azaroa 2017

Newsletter N.1





Newsletter N. 1

Azaroa 2017



*Any communication or publication related to the project, made by the beneficiaries jointly or individually in any form and using any means, shall indicate that it reflects only the author's view and that the Agency/Commission is not responsible for any use that may be made of the information it contains.

www.life-baccata.eu



SOCIOS

LIFE15 NAT/ES/000790



ADMINISTRACIONES COLABORADORAS

